



www.begiko.com

© Testua: 2010, JASONE OSORO

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-33-9

Lege-gordailua: M-16334-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Azaleko irudia:

Alex Macho

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Jara *live*

Jasone Osoro

begiko

Edithi

Teloneoak

9

Termometroak 38 gradu markatzen zuen kalean, eta berotik babesteko sartu zen Jara Rec disko-dendan. Han zegoen Oriol, bezero batzuei erosi berri zutena kobratzen. Jarak azken nobedadeei begiratu bat emateko aprobetxatu zuen. Uda gogor hartan musikak parentesi bat egiteko aukera ematen zion gutxienez.

—Piper gaur ere? —Oriol atzetik hurreratu zitzaion.

—Libratu zara, azkenean? —Jarak musu eman zion ezpainenetan mutil-lagunari.

—Jende asko dabil gaur. Badakizu beroa egiten duenean zeinen gustura egoten garen aire girotuarekin!

—Zergatik uste duzu, ba, etorri naizela ni?

—Ni ikusteko, ez ala? —bota zuen Oriolek mimo bila—. Eta? Zer moduz partikularrean?

—Aspertuta. Egunero joan beharrak ito egiten nau. Gaur, lehentxeago atera naiz dentista neukala esanaz —aitortu zuen Jarak.

—Zure aitak jakingo balu... —aurpegiratu zion mutilak.

—Baina ez du jakingo. Gainera, etxean ere banabil ikasten. Badakizu lehentasuna dutela irailleko azterke-

tek. Oporrik gabe geratu banaiz, izan dadila zerbaite-
rako!

Une horretan Jararen sakelakoak jo zuen.

—Ihintza, guapa!

Oriolek alde egin zuen iritsi berri zen kaxa batean sartutako liburuak apaletan jartzeko aitzakiarekin. Jara bazter batera joan zen Ihintzarekin hitz egitera.

—Eta? Zelan uda? Festarik festa, baietz? Zer inbidia... —jakin nahi izan zuen Jarak.

10 —Ba, ez pentsa. Poltsikoa ere ez daukat oso beteta eta aukeratu egin behar.

—Tira, tira... Beti kexatzen! Jakingo bazenu zer plan dudan hemen! —bota zion Jarak.

—Baina Oriol zure aldamenean. Hori bai zortea!

—Beste erremediorik ez duelako geratu da! Lagunekin irailan joango da oporretan eta dirua aurreratu nahi du.

—Halere, zu hor egoteak ziur asko arinduko du haren kalbarioa!

—Egia esan... Oso gustura gaude, Ihintza.

—Ikusten? Azkenean, ondo atera zaizu zigorraren kontua.

—Ez zaitez pasatu! Aukeran nahiago zuekin hor egon eta hondartzara joan eta aspaldiko lagunak ikusi eta... —aitortu zuen Jarak.

—Hondartza gutxi, neska. Euria eta euria eta zirimi-
ria eta...

—Betikoa.

—Baina... badut albiste on bat. Eta plan bikaina zu-
retzat!

—Uiuiuiiiii... Plan hitzak beldurra ematen dit zure ahoan —esan zion Jarak Ihintzari.

—Jara, zu akordatzen al zara Austrolopitekus taldearekin?

—Nola ez, ba? Jazz eta haren laguneren musika taldea! Neu izan nintzen-eta bideoklipeko protagonista! —esan zuen Jarak harro.

—Ba, hau bonbazona esan behar dizudana... Flipatu egingo duzu.

—Zer? Diskoa kaleratuko al dute? —galdetu zuen Jarak.

—Ia-ia! Kontzertua eman behar dute.

—Kontzertua? Eta non?

—Badakizu urtero Gazte Kanpaldiak antolatzen direla, ezta?

—Bai, Lekeitio inguruan edo...

—Horixe! Asteburu osoa kontzertu, festa, animazio, ikastaro eta antzeko ekintzekin...

—Eta hor jo behar al du Jazzek?

—Kriston taldeak egongo dira. Entzun, entzun: Berri Txarrak, Kerobia, Kauta, Betagarri, Doctor Deseo, Fito... —azaldu zuen Ihintzak.

—Doctor Deseo eta Fito ere bai? —harriturik, Jarak.

—Bueno, eta beste dozena erdi gehiago! Ba, kontua da aurten talde berriei ere utzi dietela agertoki txiki bat eta Austrolopitekus aukeratu dutela horien artean!

—Benetan? Hori bai zortea! Egia esan, merezi dute.

—Ba, has zaitez motxila prestatzen, datorren asteburuan da eta! Dena pentsatuta daukat: autobusez joango gara, kanpinean eta...

—Ihintza, nik ezin dut —esan zuen triste Jarak.

—Nola ezetz?

—Badakizu aurten zigortuta nagoela eta iraileko azterketetarako ikasi behar dudala.

—Baina asteburu bat libre daukazu, ezta?

—Bai, baina ez dut uste aitak utziko didanik.

—Neuk konbentzituko dut! —saiatu zen Ihintza.

—Zuk? Zurekin joango naizela esaten badiot, orduan bai ez didala utziko.

—Hara!

12 —Bueno, hitz egiteko modu bat da. Gainera, dirurik ere ez daukat eta...

—Konponduko gara! Jara, etorri behar duzu. Mundial pasatuko dugu!

—Pentsatuko dut, baina... Ez dakit.

—Sarrerak agortu aurretik esan, ados? —estutu zuen Ihintzak.

—Gaur bertan komentatuko diot amari. Aita gogoragoa da kontu hauetan.

—Energia positiboa bidaliko dizut hemendik!

—Kontzentratu, kontzentratu!

—Bueno, txiki, esandakoa. Bihar bertan deitu, bale?

—Nire kontu. Muxu! —agurtu zuen Jarak.

—Aio, aio!

Plan ezin hobea zen. Lekeition, kontzertuak, jaia, asteburu oso bat Ihintzarekin. Gurasoak konbentzitu behar zituen. Nola edo hala, Jarak ere Jazz eta haren taldekideak ikusi nahi zituen taula gainean.

—Zer zeukan orain Ihintzak? —jakin nahi izan zuen Oriolek.

—Hiru eguneko kontzertua omen dago Lekeition. Joateko.

—Bikain! Biok joango gara!

Oriol ere bai? Hori ez zegoen Jararen planetan. Are gutxiago, Ihintzaren buruan. Ihintzak libre ibili nahiko zuen, biak eskuz esku. Mutilak ezagutzen, dantzan, barrez... Eta Jarak ere, aukeran, nahiago zuen hiru egun horietan mutil-lagunik gabe egon. Ai ama! Dena konplikatzen ari zen.

—Baina... asteburuetan zuk lan egiten duzu. —saia-
tu zen Jara.

—Libre eskatuko dut. Ziur Ferrani ez zaiola inportako.

—Bai. Halere, lehenengo gurasoak konbentzitu behar ditut.

Lan bikoitza zuen Jarak. Lekeitiora joateko baimena lortzea eta mindu gabe Orioli bakarrik joan nahi zuela esatea.

Bai eta ez

- 14 Etxera bidean plan bat okurritu zitzaion Oriol konbentzitzeko Lekeitiora ez joateko. Ihintzari eskatuko zion laguntza. Estrategia oso simplea zen: Ihintzak Orioli telefonoz deituko zion esanez sorpresa bat ari zela prestatzen Jararentzat. Herriko lagun talde osoa elkartuko zen Lekeition; aspaldiko partez elkarrekin egongo ziren, umetako bizipenak oroituz, txikitan bizi izandakoak gogoratuz. Irrikaz zegoela jakinaraziko zion, Bartzelonara sekula joan izan ez balitz bezala, asteburu horretan herrikoa zela eta herrian bizi zela sinestara zi nahi zion. Jarak ezer jakin gabe, dena Ihintza eta Jazz antolatzen ari zirela kontatuko zion, eta dena isilean egin nahi zutela, Jarak susmorik ez izateko. Orioli adierazi nahi zion joango balitz lekuz kanpo egongo zela, zuzenean ezer esan gabe, baina plana kontatu eta gero ulertuko zuela pentsatuz. Oriol pertsona irekia zen, baina, era berean, bazekien noiz zegoen sobera. Eta berehala ulertuko zuen hura Jararen eta bere bizi-tzako lehenengo etapako jendearen asteburua zela. Oriolek bere kabuz erabakiko zuen Lekeitiora ez joatea.

Ideia ez zen txarra, Jarak ondo ezagutzen zuen Oriol. Pena ere ematen zion eta Oriolek berarekin antzeko zer-bait egin zezakeela pentsatze hutsak goibel sentiarazten zuen. Azken batean, normalena da zure bizitzako pasarte guztiak bikotekidearekin konpartitu nahi izatea. Ala ez? Agian ez. Lekeition Ihintza eta biok bakarrik egon nahi izateagatik ez zuen gutxiago maite Oriol. Hori ere esan ziezaiokeen, baina... gezur txikia errazagoa egiten zitzaion eta, gainera, min gutxiago egingo ziola pentsatu zuen.

15

Afalordua aprobetxatu zuen Jarak amarekin hitz egiteko. Asteartea zen, eta aitak Bartzelonan egin zuen lagun taldearekin kanpoan afaltzeko ohitura zeukan. Arrautza frijituak patatekin jarri zituen mahai gainean amak.

—Ummmm... Hau bai afari goxoa! —atera zitzaion Jarari. Ama bereganatu nahi zuen, giro aproposa sortu.

—Tira, bota —ezustean harrapatu zuten amaren hitzek Jara.

—Bota zer? —saiatu zen disimulatzen neska.

—Arrautza frijituak ez dira inoiz zure gustuko izan.

—Nola ezetz?

—Azpizuna atera izan banu... Edo legatz frijitua... Baina arrautzak...? —jarraitu zuen amak.

—Ez dira gauza bera, baina...

—Ihintzak deitu dit, Jara.

—Zeeer? —hura bai ez zuela espero.

—Kontzertuarena kontatu dit, Lekeitiokoa.

—Neska hori akatu egingo dut! —haserretu zen Jara.

—Ni konbentzitzen saiatu da esanez, zeinen neska zintzoa zaren, zeinen arduratsua, merezi duzula festa pixka bat uda gogor honetan...

—Txiki-txiki egingo dut... —segitu zuen neskak.

—Aukera ezin hobea dela biok elkarrekin egoteko...

—Guraizeak hartu eta haren txima luzeak moztuko ditut! —sutan zegoen.

—Eta baietz esan diot.

—Zer? —mutu geratu zen Jara, bat-batean.

16 —Baietz. Lekeitiora joateko baimena emango dizudala.

—Baina... baina, nola? Hain erraz? —sinetsi ezinik.

—Ba, bai. Ondo portatu zara orain artean, eta uste dut mesede egingo dizula parentesitxo bat egiteak.

—Ba, ez zait ondo iruditzen! —esan zuen Jarak.

—Zer? —harrituta, amak.

—Arratsalde osoa pasatu dut zer eta nola esan pentsatzen. Orduak eman ditut zuek konbentzitzeko argudio bila eta...

—Eta?

—Eta badirudi Ihintzak nik baino botere handiagoa duela zugan!

—Zer lelokeria dira horiek, Jara!

—Lelokeriak ez, egia potoloak!

—Baina, ez al zenuen joan nahi?

—Bai, jakina!

—Ba, utziko dizudala esan dizut.

—Nik esan izan banizu, ezezko borobila emango zenidan, ziur —jarraitu zuen Jarak.

—Harrigarria! Hara, jan itzazu arrautzak hoztu aurretik.

—Gosea ere kendu zait —Jara altxatu egin zen.

—Nora zoaz?

—Nire logelara. Ez da bidezkoa —sukaldetik atera zen.

—Hau da hau! Nerabeak ulertuko dituenik ez da jai!

Ohe gainean etzanda, musika entzuten ari zen Jara etxeko telefonoa entzun zuenean. Berehala, ama sartu zen gelan.

—Zuretzat da.

—Ihintza bada, esan ez nagoela.

—Ferran da. Ea gaur Carla zainduko duzun. Azken orduko afari bat atera omen zaie.

Jarak telefonoa hartu zuen eta, erantzun aurretik, amari alde egiteko keinua egin zion.

—Kaixo, Ferran.

—Sentitzen dut, Jara. Beste planik baduzu, lasai esan, ulertzekoa da eta.

—Ez, ez; joango naiz. Gainera, on egingo dit etxetik ateratzeak.

—Zer? Gaur ere muturtuta gurasoekin, ala?

—Amarekin. Ez dago hura ulertzerik! —esan zion Jarak.

—Seguru berak gauza bera pentsatzen duela zutaz!
—gaineratu zion Ferranek.

—Baliteke —onartu zuen neskak pentsakor.

—Eta izan liteke biok arrazoia izatea. Gurasoen eta seme-alaben arteko ezin ulertua oso-oso aspalditik dator, neska!

—Bai, bai.

—Tira, orduan, etorriko al zara?

—Hamabost minutuan hor egongo naiz —ziurtatu zion Jarak.

—Primeran. Portzierto, Carlak afaldu du dagoeneko. Zuretzat nahi duzuna prestatu.

—Ados.

18

Oriol Ferranen etxean agertzea ez zitzaion batere gustatu Jarari.

—Badakizu ez dela komeni zu hona etortzea Carla-
rekin nagoenean —aurpegiratu zion.

—Baina Ferrani ez zaio inporta.

—Niri bai. Lanean nago, Oriol.

—Zer duzu? —mutila harrিতuta zegoen Jararen ja-
rrera ikusita.

—Ezer ere ez!

Jara sofan etzan zen eta telebistako agintea hartu
zuen. Katez aldatzen hasi zen inolako irizpiderik gabe.

—Ba al dugu garagardorik? —galdetu zuen Oriolek.

—Zeuk begiratu. Badakizu non dagoen hozkailua.

—Nahi al duzu bat? —eskaini zion.

Jarak hitzik esan gabe erantzun zion, begirada zorrotzez.

—Bale, bale, ulertu dut. Badakit ez zaizula gustatzen alkohola edatea...

—Ixo! Carla lo dago eta esnatu egingo duzu!

Oriolek jertsea hartu zuen sofa gainetik eta aterantz bideratu zen.

—Nora zoaz? —galdegin zion neskak.

—Kalera. Bistan da sobera nagoela.

—Itxoin... Barkatu —desenkusatu zen neska.

—Kontatuko al didazu zer gertatzen zaizun? —Oriol neska-lagunaren ondoan eseri zen eta musu ezti bat eman zion masailean.

—Amarekin haserretu naiz. Eta Ihintzarekin ere oso haserre nago.

—Kontzertura joaten ez dizute utzi, ezta?

—Baimena eman didate. Hori da okerrena.

Oriolek ez zuen ezertxo ere ulertzen.

—Baina... ez al zenuen joan nahi?

—Bai, baina kontua da Ihintzak deitu diola amari dena kontatuz, eta, etxeratu naizenerako, bazekien kontzertuarena, bazekien zenbat egun diren eta non den, eta erabakita zeukan baimena ematea.

—Non dago arazoa? —Oriol guztiz galduta zegoen.

—Nik eskatuz gero, ezezkoa emango zidala!

—Erotuta zaude! —bota zion Oriolek.

—Hori pentsatzen al duzu? Bai? Ba, zoaz hemen-dik.

Jara sofatik altxatu eta lurrean eseri zen. Amorratuta zegoenean, jarrera horixe hartzen zuen beti. Eta kuxina eskuartean, kosk egiten hasi zitzaion.

—Jara... —Oriol bere neskaren aldamenean eseri zen—. Ez al zara konturatzen burugogorkeria kontua dela hau guztia?

—Nire izateko era da.

—Bale. Baina nahi zenuena lortu duzu. Zer inportazio zuk edo Ihintzak eskatutako baimena den?

—Niretzat garrantzitsua da. NEURE gurasoak dira. NEUK eskatu behar diet baimena. Eta NEURI esan behar didate baietz.

20 —Eta orain, zure ohorea salbatzeko zer egin behar duzu? Lekeitiora joan gabe gelditu?

—Ez.

—Zuk joan nahi al duzu?

—Jakina, ba!

—Ba, zoaz eta disfrutatu! Behin gauzak erraz lortuko eta hortik ere arazoak atera behar!

Jara pentsakor geratu zen une batez. Oriolek arrazoia zeukan.

—Egia. Ume hutsa naiz, ezta?

—Batzuetan, bai —onartu zion Oriolek.

—Ez dakit nola jarraitzen duzun nirekin.

—Neska maitekorra zarelako, inozoa.

Elkar besarkatu zuten.

—Nik ere badut zerbait esateko —esan zuen Oriolek—. Ezingo naiz zuekin joan.

—Zergatik? —jakin nahi izan zuen Jarak.

—Unibertsitateko lagun batek deitu dit. Abendurako egin nahi dugun erakusketa prestatzeko datorren asteburuan elkartuko direla esan dit. Ezin dut hutsik egin.

—Ulertzen dut, bai.

—Benetan? Ez zaizu inporta?

—Pena ematen dit. Gustatuko litzaidake zuk Lekeitio ezagutzea, hango giroa, nire lagunak...

—Agian gure kontua atzera daiteke... —saiatu zen Oriol.

—Ez, ez! Izango dira aukera gehiago zu Euskal Herrira joateko.

—Gainera, zuk eta Ihintzak askoz gehiago gozatuko duzue bakarrik!

21

Jarak irribarre egin zuen. Oriolek arrazoia zeukan. Estrategiarik eta gezurrik gabe ohartu zen Oriol kon-tzertu hura ez zela berarentzat. Mutil azkarra zen, jato-rra, zintzoa, leiala. Jarak, batzuetan, sentsazioa zeukan ez zuela horrelako mutilik merezi. Oriolek sekula ez luke estrategiarik prestatuko Jara uxatzeko. Pertsona gar-bia zen, aurpegira hitz egiten duten horietakoa. Jarak asko zeukan ikasteko oraindik. Tira, adinak ere era-gingo zuen, seguruenik. Edonola, disfrutatzen hasteko ordua zuen. Azken batean, dena ondo atera zitzaion. Gurasoen baimena zeukan eta Oriol ez zen joango. Ilusioa egiten zion Ihintzarekin asteburu osoa pasa-tzeak, nahiz eta bazekien Oriolen falta sumatuko zuela.

—Jara..., ura...

Carlak bikotea lurrean eserita eta musuka harrapatu zuen. Beti bezala. Jara eta Oriol barrez lehertu ziren. Eta Carlak ere barre egin zuen.